



Gure La Salle eskolak bere zentzua aurkitzen du ehundaka urte dituzten oinarri eta ohituretan erroturik, unibertsalak diren balioetatik lan eginez eta biziz, baita Hezkuntza Elkartea osoarentzat ezagutza, esperientzia eta hazkuntzarako bide izanik ere.

Bide horretan, gure eskolaren oinarriko bokazioak eta giza taldearen eguneroko bultzadak pertsona oro den moduan onartzea bilatzen du pertsonak beren gaitasunak osotasunez lortu ahal izateko, modu integralean garatu eta zoriontasunerako trebatu ahal izateko.

GAREN horretatik abiatzen gara, IZAN nahi dugun hura proiektatzeko.

## MISIOA

**Arlep Distrituko Misio Proiektua (2012)** geureganatzen dugu eta gure eskolako ezaugarri eta ohiturekin aberastu dugu.

La Salle Donostia Ikastetxea salletar hezkuntza tradizioan oinarrituriko eta giza ekimenetik sorturiko Ikastetxe kristau eta euskalduna gara, non Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa eskaintzen diren. La Salle Obren Sareko partaide gara eta titularra Kristau Eskolen Anaia Elkartea da.

Gure izaeraren arrazoia pertsonengan zentratzen den Hezkuntza Proiektu batean oinarritzen da, gure inguruko gizartearen beharrei modu aktiboan erantzuten saiatuz. Pertsona guztiei irekita dagoen proiektua da, bereziki behar gehien daukatenei. Euskal Herriko historia eta kultura erreferentetzat harturik, La Salle Donostia Ikastetxeak gure ikasle guztien hezkuntza integrala bilatzen du, haietako bakoitzaren gaitasunak osoki bultzatzeko.

Proiektu honen bultzatzaileak bokaziodun pertsonak gara, proiektuarekin konprometituak gaude; etengabeko ikaskuntza eta hazkuntza prozesua bultzatzen dugu; geure familien beharrei modu egoki eta iraunkorrean erantzungo dieten hezkuntza programak eta metodologiak ikertzen eta garatzen ditugu. Kudeaketa modu zehatza bultzatzen dugu, lortutakoarekin asetuko diren lan dinamikak baino, etengabeko hobekuntza bilatuko dutenak.

## IKUSPEGIA

Gure inguruko hezkuntza-erreferentea izan nahi dugu gure ikaslegoaren garapen integralaren alde egiten dugun lanari esker. Honako ezaugarriengatik ezagunak izan nahi dugu eta lan egiten dugu:

- Gure familiei eta ikasleei hurbila den espazioa eskaintzeagatik. Bertan ikaslea maitatua eta errespetatua sentituko da eta bere potentziala osotasunean garatu ahal izango du. Gure ikasle bakoitzari buruzko erabakiak hartzerakoan -bereziki behar gehien dituztenei buruzkoak- goian esandako irizpide nagusian oinarritzen gara.
- Esperientzia aukera zabala eskaintzeagatik. Esperientzia aukera anitza, sakona eta aberasgarria, familiei beren seme-alaba bakoitzaren potentzialitateak garatzen lagunduko diena. Beraz, gurasoei beraien egunerokoan lagundu nahi diegu, bidelagun izanez, balioak, autonomia, ezagutzak, etab. eskainiz, norberak bere zoriontasunerako eta arrakastarako bidea diseina dezan.
- Gure ikasleak irizpide propioak dituzten herritarrak izateagatik. Autonomoak eta zoriontsuak izatea nahi dugu, beraien gaitasunak modu orekatuan garatzearen alde lan egiten dugu, justziaren eta koherentzia pertsonalaren balioez kontziente izan daitezen.
- Kalitatezko hezkuntza eskaintzeagatik, gure ikasleei emaitza akademiko bikainak lortzeko aukera emango diena, ebaluazio proben aurrean norberaren irudi onena eskaini ahal izateko.
- Etengabeko hobekuntzaren kulturaren lan egiteagatik, metodologia inklusibo eta berritzailean erreferente izanik.
- Familiei eredu eleanitza eskaintzeagatik, beti ere euskal kulturaren garapen eta hedapenarekin konprometituak.
- Ikasleen beharrei erantzuten dien eskola bilakatzeagatik, zentzuz beteriko berrikuntza metodologikoaren bidez. Ikasleen behar errealei erantzuten dien eskola nahi dugu izan.
- Aniztasuna aberastasun moduan bizitzeagatik. Genero, erlijio, arraza, iritzi ezberdintasunak... gurean aniztasunarekiko errespetua konstante, esplizitu eta etengabekoaren alde lan egiten dugu.
- Eskola jasangarriaren alde lan egiteagatik. Naturari errespetua, kontsumo jasangarria, ingurunearen errespetuzko kudeaketa eta garbitasuna daude gure eskolaren politikan.
- Familientzat Kristau fedearen eta barnetasunean garapenaren erreferentea izateagatik.

Azken finean, Hezkuntza Elkarteko kide oro osotasunean garatzeko aukeraren alde lan egiten dugu. Dokumentu honen amaieran, iritsi nahi ditugun oinarritzko profilak laburbildu ditugu eta gure Hezkuntza Proiektuaren zati dira.

## BALIOAK

Gure balio guztiak PERTSONAREN inguruan kokatzen dira, hauxe baita gure bokazio eta jardueraren muina, balio Kristau eta Salletarrekin elikatuz. Pertsona, eta zehazki gure ikasle oro, eskolaren Proiektu eta gure izate osoaren ardatz da, beti ere, Elkartean zati delarik.

**Hurbiltasuna, Presentzia, Harremana:** Pertsonen arteko harreman positiboak bultzatzen dituen Eskola gara. Hurbiltasuna eta Presentzia, ikasle zein familiekin, proiektuaren ardatzetako bat dira.

**Aniztasuna:** Harreman eta hurbiltasun horretan aniztasunaren presentzia baloratzen dugu, bere alderdi guztietan, beti baita aberasgarria eta normaltasunez bizi nahi baitugu, garena eta egiten duguna aberasketa horren alde eskainiz.

**Kidetasuna:** Pertsonengan oinarritutako Proiektu baten zati sentitzen gara, eta Hezkuntza Elkarteko kide ororen inplikazioa, kidetasun zentzua, konfiantza eta erantzukizuna bilatzen ditugu. Salletar Elkartean zabalago baten barruan bizi dugu gure bokazioa eta eguneroko lana, hurbilenetik Unibertsalera, askoz zabalagoa den Proiektu baten zati garela jakinez.

**Talde lana:** Geure izaerari eta interpelatzen gaituzten erronkei erantzuteko modurik hoberena talde-lan kooperatiboa dela uste dugu. Sortzen diren zailtasunak gainditzeko, horixe da lan egiteko modurik egokiena.

**Errespetua:** Gure eskolan, pertsona oro eta ingurunea bera ere, errespetuzko trataera batez zainduko da.

**Euskal Kultura:** Gure lanaren oinarritzko erreferente da Euskal Kultura, gure gizarte hurbilaren identitate ikurra eta altxorra baita. Inguruan bultzatzea da gure ezaugarrietako bat.

**Kudeaketa, Ebaluazioa eta Autokritika:** Guztion partaidetzaz etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa sistema daukagu. Hezkuntza jardueraren ebaluazioa norberaren eta guztion ikasketarako baliagarria izango da eta haztera eramango gaituen autokritika osasuntsuzko giroan garatuko da.



**Sormena eta Espiritu ekintzailea:** Gure Hezkuntza Elkarteko kide guztion sormenerako gaitasuna eta espiritu ekintzaileak baloratzen ditugu eta, eskolarentzat duten balio ikaragarria ezagututa, bultzatzen ditugu.

**Barnetasuna eta Transzendentzia:** Gizakion gaitasun eta balio oinarritzotzat ditugu transzendentzia eta barnetasuna, eta beraz, hauek lantzeko aukerak eskaintzen ditugu.

**Zentzuz beteriko metodologiak:** Eskola berritzailea eta orekatua osatuko duten metodologiak garatzea dago eskolaren izaeran, moden eta presioen gainetik, ikasleek dituzten beharrei eta momentuko aldaketei egokituko direnak, gure lana zentzu sakon batez osatuz.

Gure proiektu osoa oinarritzen duen ardatz bat dator, zentzuz betetzen duena: **Pertsona**. Pertsona bakoitza eta pertsona Elkartean zati bezala. Ebanjelioaren maitasunaren agindutik hartua, zaindua eta lagundua.

Eskolaren, Irakaslearen eta Ikaslearen Oinarrizko Profilak. Gure Hezkuntza Proiektuaren bokazioa:



# ikaslearena

